

ZERTARAKO ERABILTZEN DIRA ETENPUNTUAK?





- Amaitu gabe azaltzen diren **enumerazioak adierazteko, eta abar** esapidearen esanahi bertsua adierazteko:

Ikus entzunezko ekitaldiak egiteko areto moduan erabiliko da bakarrik: antzerkiak, film emanaldiak, kontzertuak, hitzaldi edo konferentziak, aurkezpenak...

- Ahozko adierazpenetan egiten diren **etenak idatziz jasotzeko**: osatu beharrik ikusten ez delako, adierazpenari beste bide bat eman nahi zaiolako, zalantza sortu delako, denbora irabazteko...:

Hemen, aldiz, bestelakoa izan da mezua: «Gabonetan, agian... Urtarrilean, agian... Otsailean, beharbada...
(*Administrazioa Euskaraz* aldizkaria, 111. zk.)

Iker Laboa eta..., ez dut gogoratzen beste hizlariaren izena.





- **Izenburu luzeen** aipamen osoa ez errepikatzeko edo jakintzat jotzen den diskurtso baten borondatezko etena adierazteko.

Hurrengo urratsa gipuzkeraz eman zuen: *Confesio ta Comunioco sacramentuen gañean eracasteac...* dotrina liburua idatzi zuen eta 1800ean atera, arrakasta bikaina jadetsiz. [Osorik: *Confesio ta comunioco sacramentuen gañean eracasteac edo cembat gauzac lagundu behar dien confesio ta comunioari ondo eguiñac izaiteco*]

Txapela buruan...
Bururik ez duenak...

- Eten adierazkorrak, **jakingura adierazteko**, zirrara sortzeko:

Badakizu nor etorri den? Miren eta... Ane!



- **Hitz desegokiak saihesteko.** Batzuetan, aditzera eman nahi den terminoaren hasierako lehen letraren ostean jartzen dira:


Hi haiz hi ..., bai horixe!
Irakaslea, p... halakoa!

Prozedura bera erabiltzen da ezkutatu nahi dena izen propio bat denean:

Epaileak M... zigortu du; aldiz, L... aske utzi du.

- **Adierazpena irekita uzteko, zalantza, desioa, emozioa, eta abar adierazteko.**

Ze pena... / Ene bada!... / Ez dakit bada...





- Testu-aipamen bat **ez dela hasieratik erreproduzitu** adierazteko. Halakoetan, etenpuntuak aipamenaren aurretik jartzen dira, eta zuriune bat uzten da ondoren duten hitzaren aurretik.


Aipamena **bukaeran geratzen denean osatu gabe**, etenpuntuak amaieran gehituko ditugu, aurreko hitzetik bereizteko tarterik gabe. Bi kasuetan parentesi eta kortxeterik gabe.

Gogoeta bat egingo nuke: ... **Ez** gara jabetzen aldi bateko gaudela, iragankor garela. Badira beste “izaki” batzuk, mikroorganismoak –birusak barne direla, adibidez– beren papera dutenak, garrantzizko rola munduan. Horretaz jabetu behar dugu. Ez gara munduaren erdigunea, eta alferrik ari gara uste horretan baldin **bagau**de...
(*Administrazioa Euskaraz* aldizkaria, 111. zk.)

- **Aipuetan, zerbait kendu dela adierazteko.** Halakoetan, parentesi arrunt edo, hobe, karratu artean idatzi ohi dira:

Gogoeta bat egingo nuke: Gizakia munduaren lehena balitz bezala jokutzen dugu, munduaren erdigunea bagina bezala. [...] Ez gara munduaren erdigunea, eta alferrik ari gara uste horretan baldin bagaude...

(*Administrazioa Euskaraz* aldizkaria, 111 zk.)



NOLA KONBINATU PUNTUAZIO-MARKAK?



PUNTUAREKIN

Etenpuntuak **puntuz bukatzen den laburdura baten ostean** jartzen ditugunean, laburdurarena gehi hiru puntuak idatziko ditugu. Halakoetan, lau puntu elkartuko dira.

Bete itzazu honako datu hauek: izen-abizenak, helbidea, telefono-zk....





BESTELAKO MARKEKIN

Galdera- zein harridura-markak eta etenpuntuak beren artean nahiz bestelako markekin konbinatzen direnean, esanahiak erabakiko du non kokatzen diren.

Etenpuntuak galdera- edo harridura-markaren **aurrean** idatziko dira, enuntziatua **osatu gabe badago**:

Urrutiko intxaurrak hamalau...!

Enuntziatu hori **osorik badago, atzean** idatziko dira, bereizteko tarterik gabe:

Ez duela asmatu?...



